

Aurten ere Bernardo Atxagak kale egingo du EKT aditu titulu

2009/04/23

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulu, programa argitaratu orduko, parte hartuko duten hizlari guztien baiezkua izaten dugu. Bi ediziootan, oso gutxi izan dira berba eman ondoren etorri ez direnak.

Bernardo Atxagaren kasuan, iazko edizioan, 2006ko abenduan adostu zen bere parte hartzea. **2007-08 ikasturtea hastearekin batera Renora joan zela-eta**, ezinezkoa izan zitzaion parte hartzea. Ulergarria, beraz.

Aurtengo ediziorako, **2008ko azaroan parte hartzeko adostasuna jakinarazi zigun**. Aurreko astean, ordea, lanez gainezka dabilela-eta, ez dela etorriko jakinarazi digu. Ulergarria izan daiteke erantzuna, baina gu ez gaitu erabat ase: barbari eutsi egin behar zaiolakoan gaude!

Gurera datozen guzti-guztiak dira garrantzitsuak guretzako; badutelako zer irakatsia ekartzen ditugu. Pena ematen digu Bernardo gure artean ez izateak. Egin ahalak eginagatik gure aldetik, aurten ere kale egin digu.

